



*Juan Bautista Gisasola Eibarko Musika Eskolako bederatzi ikasle gaztek Ustekabe fanfarrearekin parte hartu zuten ekainaren 24ko umeen danborradan. Harremanak estutu eta ikasleei txarangara hurbiltzen hasteko aukera eskaini nahi izan zien Ustekabek.*

# Ustekabe, harrobiarekin bat

MUSIKA ESKOLAKO BEDERATZI IKASLE, USTEKABEREKIN DANBORRADAN

**J**uan Bautista Gisasola Musika Eskolako hainbat ikaslek sortu zuten Ustekabe fanfarrea, 2000. urteko neguan. Orditik hona dozenaka lagun pasa izan dira fanfarretik, gehienak Musika Eskolako ikasle edo ikasle ohiak izandakoak. “Denok ez dugu bertan ikasi, baina gure harrobi naturala hori da eta beti argi izan dugu ondo zaindu behar dugula”, diote Ustekabetik. Bere jatorrira itzuli eta bederatzi ikasle estreinakoz aritu ziren aurtengo Sanjuanetan txarangarekin.

Saxofoiaz sei gazte eta flautaz beste hiru aritu ziren Ustekaberekin batera. Hainbat instrumentutako ikasle hartzea zen asmoa (tronpeta, klarineta, perkusioa), guztira 15 izango zirenak; baina, hainbat arrazoiengatik, bereziki eurentzat prestatutako entsaioetara etorri ez zirenak ez zuten parte hartu. Zailtasunak egon badaudela onartzen dute txarangakoek: “Guri lagungarri izan dakiguke euren laguntza; baina, bederatzi lagunentzako lehen aldia izanda, eroso egoten lagundu behar izan diegu... Eurentzat ere zenbait kantu ez dira errazak. Gainera entsaio bereziak egin behar izan ditugu, eta parte hartu zuten bederatzi ikasle horiek txukun lan egin zuten emanaldi hori prestatzeko” adierazi zuten.

## **Helburua: harrobia lantzea**

Ez da gisa honetako lehen ekimena Ustekaberekin. 2007an Musika Eskolako 50 ikasle irten ziren San



Andres jaietan txarangarekin batera, “Pastelero”, “Neskak”, “Sinosuke” eta “Egunda Santimamiñe” kantuak jotzen. Orditik hona Ustekaberen osaera ia erabat berriztu da. Garai hartan ikasle zirenetako askok osatzen dute gaur Ustekabe, presidente gaztea horren adibide. “Nik 11 urte nituen orduan, ilusio handia egin zidan... eta eskaini ziguten aukera bera eskaini nahi diegu gaur ikasle direnei ere”, azaldu du Xabier Oruesagasti presidentek. “Helburua epe luzekoa da. Harrobia lantzea da guretzat garrantzitsua. Hau helburu orokor horretara bideratutako ekimen zehatza baino ez da” esan du.

Zentzu horretan, Musika Eskolako irakasleen lana eskertu dute Ustekabekoek, “bereziki Iñaki Etxebesteri eta Iker Sanzi, saxofoi eta flauta irakasleei, hartutako konpromisoari tinko eutsi eta gogor lan egiteagatik”. Musika Eskolako irakasleen inplikazioa “ezinbestekoa zaigu herriko musika taldeen etorkizuna bermatu

nahi badugu”, adierazi dute, harrobia lantzearen beharra azpimarratuz. “Horrelako elkarlanak estrategikotzat dauzkagu, ez gure taldearentzat soilik, baina Eibarko herri osoarentzat ere. Katea ez etetea da garrantzitsua, ikasleek herriko musika talde desberdinak hornitzen eta talde berriak sortzen jarraitzea, euren aisialdi beharrak asetuz kultur-bizitza aberatsagoa sortzeko herri guztia-arentzat”. Antzeko ekimen gehiagoren falta nabaritzen dute herriko txarangakoek: “Uste dugu talde bakoitzaren dinamiketarik haratago elkarlanak bilatzea ezinbestekoa dela, eta Musika Eskola elikatzea, gero hori bueltan etorriko baitzaigu; ondo zaindu beharreko altxorra da Musika Eskola”.

## **Kide berriak**

Musika Eskolako ikasleei lehen esperientzia eskaintzeaz gain, **duela urtebetetik hona zazpi musikari berri** ere sartu dira Ustekabe fanfarran: Asier Rodriguez, Markel Corral eta Xabier Her-

nando (perkusoia); Unai Kabanon (tronpeta); eta Ruben Arriola, Marta Garin eta Marina Aperribai (saxofoia). Orotara, 15 eta 27 urte bitarteko hemeretzi kidek osatzen dute Ustekabe une honetan. Datozen urteotan ere kide berriak batzen joateko asmoa daukate Ustekabekoek, eta bide hori indartzeko asmoz egin dute elkarlana Juan Bautista Gisasola Musika Eskolarekin batera.

## **Estreinakoz, koadrilekin Sanjuanetan**

Ekainaren 24ko danborrada urteroko kontua izan da Ustekaberekin 2001etik hona, baina aurten San Juan bezperan ere jardun zuten, koadrilekin batera. Iaz Mautitza txaranga aritu zen goiz eta arratsalde, baina aurten goizeko zatia Eibarko fanfarrak egin zuen, estreinakoz. Emanaldia eguerdiko 12.00-etan hasi zen Untzaga Plazan, koadrilen bilkurarekin batera, eta Urkizuko parkera jaitsi ziren kalejiran, handik tren geltokira igotzeko. Lizarako dultzaineroei ongietorria egin ondoren, Ustekabekoek itxi zuten kalejira Untzagaraino. Jarraian poteoa alaitu zuten.

Sanjuanetarako Ustekabek iaz epe berean egindako emanaldi kopurua bikoiztuta zuen, hainbat udalerriri eta auzotan jo izan zuelako: Donostia, Abadiño, Matiena, Aretxabaleta, Urki, Eibar, Areet... eta emanaldi berriak ere badaude hurrengo hilabeteetarako. **pendientes y plurales**”.